

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, HERRI
ADMINISTRAZIOAKO ETA ERAKUNDE
HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA
KONTSEILUKO IDAZKARI ANDREAK.

HAUXE EGIAZTATZEN DU:

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita hiruko**
ekainaren hogeian egindako bilkura-saioan, erabaki hau
hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien**
Zerrendako 27. gaia.

“27.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO
ETA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO 2023.
URTERAKO AURREKONTU OROKORREI
BURUZKO ABENDUAREN 28KO 10/2022 FORU
ARAUAN AURREIKUSITAKO DIRULAGUNTZA
ZUZEN IZENDUNA EMATEKO SINATUKO DEN
HITZARMENA ONESTEKO. HITZARMEN HORREN
ARABERA, JAKINTELLIGENT FUNDAZIOARI
EMATEN ZAIO DIRULAGUNTZA, 2023-2024 GOI
SUKALDARITZAKO ESPERIENTZIA
GASTRONOMIKOAK SORTZEKO ETA GARATZEKO
ESPEZIALIZAZIO PROGRAMA GARATU DEZAN.

Lehenengoa.- Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFZ:
P4800000D) eta **JAKINTELLIGENT**
FUNDAZIOAREN (IFZ: G-01680172) arteko
hitzarmen bat egin dadin baimentzea. Hitzarmenaren
xede da 2023-2024 Goi Sukaldaritzako Esperientzia
Gastronomikoak Sortzeko eta Garatzeko
Espezializazio Programa garatzea, Bizkaiko ostalaritza-
eskoletako ikasleei zuzenduta. Hitzarmen horretan,
aldeek hartutako obligazioak eta konpromisoak
jasotzen dira, hirugarren puntuan adierazitako
finantza-ekarpena barne, bai eta, araudi orokor
aplikagarriarekin batera, dirulaguntza honetan
aplikatu beharreko erregimena ezartzen duten
klausulak ere. Testua, jasota gera dadin, bilkura-saio
honen aktari gehitu zaio 14. eranskin modura.

Bigarrena.- Baimenak berekin dakar, inplizituki,
dirulaguntza ematea onestea, ebazpen-baldintza
modura jarritz eskakizunak betetzea, eta ez egotea,
hitzarmena formalizatu aurreko uneren batean,
laguntza horren onuraduna izatea eragozten duten
debeku-egoeretakoa batean.

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA,
DIPUTADA FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y
RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIA DE
LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

CERTIFICA:

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión
celebrada el día **veinte de junio de dos mil veintitrés**,
adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 27**
del Orden del Día.

“27.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA
APROBACIÓN DEL CONVENIO A SUSCRIBIR POR
EL QUE SE CONCEDE LA SUBVENCIÓN DIRECTA
NOMINATIVA PREVISTA EN LA NORMA FORAL
10/2022, DE 28 DE DICIEMBRE, DE
PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE BIZKAIA PARA EL AÑO 2023, A
FAVOR DE JAKINTELLIGENT FUNDAZIOA PARA
EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE
ESPECIALIZACIÓN EN CREACIÓN Y DESARROLLO
DE EXPERIENCIAS GASTRONÓMICAS EN ALTA
COCINA 2023-2024.

Primero.- Autorizar la celebración de un
Convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia, con
NIF P4800000D, y **JAKINTELLIGENT FUNDAZIOA**
con **NIF G-01680172**, para el desarrollo del
Programa de Especialización en Creación y
Desarrollo de Experiencias Gastronómicas en Alta
Cocina 2023-2024, destinado al alumnado de las
Escuelas de Hostelería de Bizkaia. En el citado
Convenio se recogen las obligaciones y compromisos
asumidos por las partes incluida la aportación
financiera indicada en el punto tercero y las cláusulas
que, junto a la normativa general aplicable,
establecen el régimen a aplicar en la presente
subvención, cuyo texto para constancia se une al
Acta de la presente sesión como Anexo nº 14.

Segundo.- La autorización conlleva
implícitamente la aprobación de la concesión de la
subvención que queda sometida a la condición
resolutoria de que se cumplan los requisitos y no
estar incurso en ninguna de las prohibiciones para
adquirir la condición de beneficiaria de esta ayuda en
un momento anterior a la formalización del
Convenio.





Hirugarrena.- 150.000,00 euroko finantza-ekarpena 2023ko aurrekontuko honako aurrekontu-partida honen kargura egingo da:

Ekonomikoa: 451.00.

Programa: 432.109.

Organikoa: 08.08.

Proiektu zk.: 2022/0095.

Laugarrena.- Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sina dezan, baita hori garatzeko, ezartzeko eta betearazteko behar adina xedapen emateko ere, gerta litezkeen itzulketen espedienteak izapidetu eta ebaztea barne, baita dirulaguntzaren baldintzak aldatzeko ahalmena ere, gehieneko zenbatekoa aldatzeko ahalmena izan ezik.

Bosgarrena.- Erabaki hau JakIntelligent Fundazioari eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea, eta, era berean, horren berri ematea Ogasun eta Finantza Sailaren Fiskalizazio Zerbitzuari.”

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den egunean.

ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME

Idazkaritza orokorreko unitateko burua. Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ.

ZIURTATU. CERTIFICA Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta Idazkari andreak. La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretaria ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

Tercero.- La aportación financiera por importe de **150.000,00 Euros** se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria del presupuesto 2023:

Económico: 451.00.

Programa: 432.109.

Orgánico: 08.08.

Proyecto nº: 2022/0095.

Cuarto.- Facultar a la Diputada Foral de Promoción Económica para la firma del referido Convenio, así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo, aplicación y resolución, incluyendo la tramitación y resolución de eventuales expedientes de reintegro así como de modificación de las condiciones de la subvención, excepto en lo que se refiere a su cuantía máxima.

Quinto.- Notificar este acuerdo a JakIntelligent Fundazioa y a la Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo del Departamento de Promoción Económica y dar traslado del mismo al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.”

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA JAKINTELLIGENT FUNDAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA; HORREN BIDEZ, BIZKAIKO OSTALARITZA-ESKOLETAKO IKASLEEK 2023-2024 GOI-MAILAKO SUKALDARITZAKO SORTU ETA GARATZEKO ESPEZIALIZAZIO PROGRAMA GAUZATZEKO, BIZKAIKO OSTALARITZA ESKOLETAKO IKASLEENTZAT.

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y JAKINTELLIGENT FUNDAZIOA PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE ESPECIALIZACIÓN EN CREACIÓN Y DESARROLLO DE EXPERIENCIAS GASTRONÓMICAS EN ALTA COCINA 2023-2024 DESTINADO AL ALUMNADO DE LAS ESCUELAS DE HOSTELERÍA DE BIZKAIA.

BILDU DIRENAK

Alde batetik, AINARA BASURKO URKIRI andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta beraren ordezkari gisa, Foru Aldundiaren 2023koren ...ko Erabakiaren bidez (.gaia)emandako ahalmenak erabiliz.

Bestetik, ENEKO ATXA AZURMENDI jauna (NAN: 30672926-B), JakIntelligent Fundazioaren izenean (IFZ:G01680172), jarduten duena Bilboko notarioa den Carmen Velasco Ramírez andrearen aurrean, bere protokoloko 821 zenbakiarekin, 2020ko ekainaren 17an egiletsi zen eskritura publikoaren arabera.

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena, eta haxe

REUNIDOS

De una parte, AINARA BASURKO URKIRI, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, en uso de las facultades otorgadas mediante acuerdo nº de la Diputación Foral de fecha de de 2023.

De otra parte, ENEKO ATXA AZURMENDI, con DNI 30672926-B, actuando en nombre y representación de JakIntelligent Fundazioa (NIF G01680172) en virtud de la escritura pública otorgada ante la notaría de Bilbao, Dª. Carmen Velasco Ramírez, el 17 de junio de 2020, con el nº 821 de su protocolo.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud:



ADIERAZTEN DUTE:

EXPONEN

LEHENENGOA

Ekonomia Sustatzeko Sailak, talentua eta ezagutza erakartzeko eta sustatzeko eduki daukan eskumena baliatuz, jarduera ugari garatzen ditu pertsonen talentua aberasteko, zientziaren eta teknologiaren garapen sendoa ezaugarri duen gizarte berritzailea bultzatzeko eta, bidenabar, hura aplikatzeko eta enpresa-sektorerara transferitzeko helburuz

Helburu horrekin, Ekonomia Sustatzeko Sailak lehentasunezkoztat jotzen du gazteei laguntzea prestakuntzako jarduerak egiteko, haien enplegarritasun mailetan aurrera egitea ahalbidetuko dieten jakintza eta gaitasuna eguneratzeko xedearekin. Ildo horren barruan, arreta berezia eskaini nahi zaio lanbide-heziketako heziketa-zikloetako ostalaritza eta turismo arloetan dabilen gazteen prestakuntza espezializatuari, izaera egiaztatua duten eta Bizkaiko turismo-sektorearen garapenean ekarpen esanguratsua egiten duten proiektuak babestuz; ingurumari horretan, gastronomia dugu jarduera erakargarrienetako bat, hala ere, ez du langile kualifikaturik.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Egiten 2019-2023 deritzon estrategiaren bidez, erronka nagusietakotzat ezarri ditu jarduera ekonomikoa eta enpleguaren sorrera sustatzea eta, horretarako, talentua eta ezagutza alderdi guztietatik erakartzen eta sustatzen laguntzeko konpromisoa hartu du, eta balio erantsi handiko zerbitzuak eta laguntzak eskaintzendizkie ekimenei, betiere emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegitik. Horrela, Ekonomia Sustatzeko Sailak, bere eskumena baliaturik, beti jarduten du aukera-berdintasunaren aldeko politikak eta diskriminaziorik ekartzen ez duten neurrien estrategia bultzatzeko duen konpromisoarekin bat.

PRIMERO

El Departamento de Promoción Económica en el ejercicio de su competencia de impulso de la atracción y promoción del talento y el conocimiento, desarrolla numerosas actuaciones tendentes al desarrollo del talento de las personas, al impulso de una sociedad innovadora con un fuerte desarrollo de la ciencia y la tecnología y su aplicación y transferencia al sector empresarial.

Con ese objetivo, el Departamento de Promoción Económica considera primordial apoyar a las personas jóvenes en la realización de actividades formativas con el fin de actualizar sus conocimientos y competencias que les permitan avanzar en los niveles de empleabilidad que poseen. Dentro de esta línea, se presta especial atención a la formación especializada de las personas jóvenes de ciclos formativos de formación profesional de la familia de hostelería y turismo, apoyando así proyectos de acreditado carácter cuya contribución al desarrollo del sector turístico de Bizkaia sea significativo, siendo uno de los mayores atractivos su gastronomía, sector que, no obstante, adolece de personal cualificado.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través de la estrategia Bizkaia Egiten 2019-2023, ha fijado como uno de sus principales desafíos promover la actividad económica y la generación de empleo y, para ello, se compromete a apoyar la atracción y promoción del talento y el conocimiento en todas sus vertientes, ofreciendo servicios y ayudas de alto valor añadido a las iniciativas desde la igualdad de mujeres y hombres. Así, el Departamento de Promoción Económica en el ejercicio de su competencia actúa siempre de acuerdo con su compromiso de impulsar las políticas de igualdad de oportunidades y la estrategia de medidas de carácter no discriminatorio.

SEGUNDO



Hitzarmen honen helburua da Bilbo JakIntelligent Fundazioari zuzeneko dirulaguntza izenduna emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, Bizkaiko ostalaritza-eskoletako ikasleei zuzendutako 2023-2024 Goi Mailako Sukaldaritzako Esperientzia Gastronomikoak Sortzen eta Garatzen Espezializatzeko Programa garatzeko.

HIRUGARRENA

JakIntelligent Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 2020ko ekainaren 17an denbora mugarik gabe eratu zen Bilboko notarioa den M^a del Carmen Velasco Ramírez andreak egilestitako eskritura publikoaren bidez eta 2020ko urriaren 20an EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen (F-461 erregistro-zenbakia). Bere ondarea iraunkorki dauka lotuta interes orokorreko helburuei.

JakIntelligent Fundazioaren helburuetako bat belaunaldi berrien artean balioa eta ezagutzak sortzea da eta, hala, elikaduraren, sukaldaritzaren eta gastronomiaren munduari buruzko ikuspegi aitzindari, bakar eta zeharo abangoardiakoa transmititzea. Horretaz gainera, sektore honetan diharduten talentu gazteei gaitasun eraginkor eta probetxugarriak eskuratzea, gauza izan daitezen etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliabide eta tresnak garatzeko, garapen jasangarriaren lehentasunezko helburuaren esparruan, zeinak hainbat arlo biltzen baititu, hala nola osasuna eta ongizatea, planetaren eta ekosistemen babesa, hezkuntza, genero- berdintasuna eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.

LAUGARRENA

JakIntelligent Fundazioa arduratzen da Azurmendi Enea, SLren (aurrerantzean, Azurmendi jatetxea) parte-hartzea kudeatzeaz espezializazio programa honen garapenean, bi erakundeen artean 2020ko ekainaren 17an harpidetu zen lankidetzak hitzarmenean oinarrituz. Programa hau Azurmendi jatetxearen laguntzarekin garatuko da; jatetxeak bere instalazioak, ekipamendua eta

Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociadas a la concesión de una subvención directa nominativa a JakIntelligent Fundazioa para el desarrollo del Programa de Especialización en Creación y Desarrollo de Experiencias Gastronómicas en Alta Cocina 2023-2024, destinado al alumnado de las escuelas de hostelería de Bizkaia.

TERCERO

JakIntelligent Fundazioa, entidad sin ánimo de lucro, constituida por tiempo indefinido por escritura pública otorgada el 17 de junio de 2020, ante la Notario de Bilbao, D^a. M^a del Carmen Velasco Ramírez e inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco el 20 de octubre de 2020 (número de registro F-461), tiene afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general.

Una de las finalidades de JakIntelligent Fundazioa es crear valor y conocimientos entre las nuevas generaciones para transmitir así una visión pionera, única y de vanguardia absoluta en cuanto al mundo de la alimentación, restauración y gastronomía, dotando a las y los jóvenes talentos vinculados a este sector de capacidades eficaces y provechosas que les permitan desarrollar medios y herramientas para afrontar los retos del futuro en el seno del objetivo primordial de desarrollo sostenible que abarca ámbitos tales como salud y bienestar, protección del planeta y ecosistemas, educación, igualdad de género, producción y consumo responsable.

CUARTO

JakIntelligent Fundazioa es la encargada de gestionar la participación de Azurmendi Enea S.L. (en adelante, restaurante Azurmendi) en el desarrollo de este programa de especialización, en virtud del convenio de colaboración suscrito entre ambas entidades el 17 de junio de 2020. Este programa se desarrollará con la colaboración del restaurante Azurmendi quien cede sus



langileak uzten ditu ikasleen prestakuntzarako.

instalaciones, equipamiento y personal para la formación del alumnado

Bestalde, Azurmendi jatetxeak lankidetzahitzarmenak sinatu ditu Bizkaiko Ostalaritza Eskolekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak baimendutako beken modalitatean ikas-ekinezko araubidearen menpeko lanbide-heziketa dualeko proiektuak garatzeko.

Por su parte, el restaurante Azurmendi ha suscrito acuerdos de colaboración con las Escuelas de Hostelería de Bizkaia para el desarrollo de proyectos de Formación Profesional Dual en régimen de alternancia en la modalidad de becas autorizados por la Viceconsejería de Formación Profesional del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

JakIntelligent Fundazioaren helburu eta helburu batzuk bat datoz Bizkaiko Foru Aldundiaren helburuekin, hau da, talentu gazteak gastronomiaren sektorean trebatzea eta gaitzea, dituzten enplegarritasun-mailetan aurrera egitea ahalbidetuko dieten ezagutzak eta gaitasunak eguneratzeko. Horrek guztiak ezinbesteko eragile bihurtzen du Bizkaiko ondare kulturala eta gastronomikoa mozteko eta kontserbatzeko.

Algunos de los fines y objetivos de JakIntelligent Fundazioa coinciden con los propios de la Diputación Foral de Bizkaia, como es la de formar y capacitar a jóvenes talentos en el sector gastronómico con el fin de actualizar sus conocimientos y competencias que les permitan avanzar en los niveles de empleabilidad que poseen. Todo ello le convierte en un agente imprescindible para la promoción y conservación del patrimonio cultural y gastronómico de Bizkaia.

BOSGARRENA

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardura guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira.

QUINTO

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene su compromiso a favor de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones del Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, hitzarmenaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldietan.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este convenio deberán tener en cuenta la perspectiva de género. El VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

Se incorpora a la tramitación de este convenio, el Informe de evaluación previa de impacto en

Hitzarmen hau izapidetzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen



aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena sartu da. Hitzarmen hau idazteko aplikatu dira azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan ezarritako gidalerroak

SEIGARRENA.

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

ZAZPIGARRENA

Hitzarmen honen eremua eta bertan gauzatu beharreko alderdiak zehaztu behar dira; izan ere, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2 artikuluan xedatzen duenez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan modu izendunean aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira. Bestalde, Arau beraren 26.1 artikulua ezartzen duenez, hitzarmenak izango dira dirulaguntza horiek bideratzeko ohiko tresnak.

Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegiaren (DLFAA) 50. artikuluan ezarri da kasu hauetan dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena oinarri araupetzailatzat hartuko dela Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondoretarako, eta egintzaren edo hitzarmenaren gutxieneko edukia zehaztu du.

Horrenbestez, aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik, bi aldeek adostu hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen

función de género previsto en la Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en cuya redacción se han aplicado las Directrices establecidas en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre.

SEXTO

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

SÉPTIMO

Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar, ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, dispone en su artículo 20.2 que “podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia”. Por su parte, el art. 26.1 de la misma norma, establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 50 prevé que, en estos supuestos, el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones, y determina el contenido mínimo del mismo.

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el



hitzarmena arautuko duten klausulak

cual se registrá por las siguientes

KLAUSULAK

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak.

1. Hitzarmen honen helburua da JakIntelligent Fundazioari zuzeneko dirulaguntza izenduna emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, Bizkaiko Ostalaritza- Eskoletako ikasleek, 2023-2024, Goi-Mailako Sukaldaritzako Esperientzia Gastronomikoak Sortu eta Garatzeko Espezializazio Programa garatzeko, helburuz.

2. Programaren ezaugarriak:

a) Hartzaileak:

Bizkaiko ostalaritza- eskoletako ikasleak, honako heziketa-ziklo hauek egin dituztenak:

- Sukaldaritza eta Gastronomiako erdi- mailako gradua.
- Jatetxe-zerbitzuen erdi-mailako gradua.
- Sukaldaritza Zuzendaritzako goi-mailako gradua.
- Jatetxe-zerbitzuen Zuzendaritzako goi-mailako gradua.

Era berean, salbuespen gisa, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren aldez aurreko baimenarekin, espezializazio-programa honetan parte hartu ahal izango dute 3 urtetik gorako eskarmentua duten profesionalek ere bai, baldin eta programa ematen laguntzen duten enpresek horretarako proposatzen badituzte.

b) Programan parte hartuko duten ikasleak:

Ikasleak guztira: 15

Espezialitateak:

- Sukaldaritza eta Gastronomiako teknika-
ria: 7.

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto.

1. El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa a JakIntelligent Fundazioa para el desarrollo del Programa de Especialización en Creación y Desarrollo de Experiencias Gastronómicas en Alta Cocina, 2023-2024, destinado al alumnado de las Escuelas de Hostelería de Bizkaia.

2. Características del programa:

a) Personas destinatarias:

Alumnado de las Escuelas de Hostelería de Bizkaia que hayan cursado los siguientes ciclos formativos:

- Técnico/a en Cocina y Gastronomía.
- Técnico/a en Servicios de Restauración.
- Técnico/a Superior en Dirección de Cocina.
- Técnico/a Superior en Dirección de Servicios de Restauración.

Asimismo, de manera excepcional y previa autorización de la Viceconsejería de Formación Profesional del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, también podrán participar en este programa de especialización, profesionales de más de 3 años de experiencia que sean propuestos para ello por las empresas colaboradoras en la impartición del programa.

b) Alumnado participante:

Número total: 15

Especialidades:

- Técnica/o en Cocina y Gastronomía: 7.
- Técnico/a Superior en Dirección de Servi-



- Jatetxe-zerbitzuen Zuzendaritzako goi-mailako teknikaria: 1
- Jatetxe-zerbitzuen teknikaria: 1.
- Sukaldaritza Zuzendaritzako goi-mailako teknikaria: 6

c) Prestakuntza:

Prestakuntza- eta trebakuntza-jarduera gehienak Azurmendi jatetxean egingo dira (JakIntelligent Fundazioaren helbide berean, Ibarrio Legina z.g., Larrabetzu, Bizkaia), zeinak instalazioak lagatzen baititu), bai eta programa gauzatzeko behar diren langileak ere, eta horien kostua bere gain hartuko da. Horretarako, Azurmendi jatetxeak lankidetzahitzarmenak sinatu ditu Bizkaiko Ostalaritza Eskolekin, beken modalitatean ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko proiektuak garatzeko.

Azurmendi jatetxean egiten diren prestakuntza dualeko praktikak kanpoko curriculum-praktikatzat hartuko dira.

d) Programaren orduak: 1.750 ordu, honela banatuta:

- Lan-jarduerako orduak, Azurmendi jatetxean: 1.400 ordu.
- Prestakuntza-orduak gelan: 350 ordu. Honela antolatuko dira:
 - 200 ordu emango dira lanbide-heziketako ikastetxeetan eta
 - 150 ordu emango dituzte Azurmendi jatetxeko instalazioetan.

e) Egutegia eta ordutegia:

Programa ikasturte batean garatuko da, 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 31ra bitartean.

Ikasturtean zehar, ikasleek astean 40 ordu egingo dituzte, enpresako egonaldia eta lanbide-heziketako ikastetxeko orduak batuta,

cios de Restauración: 1.

- Técnico/a en Servicios de Restauración: 1.
- Técnica/o Superior en Dirección de Cocina: 6.

c) Formación:

Las actividades formativas y de capacitación se desarrollarán mayoritariamente en el restaurante Azurmendi, sito en la misma dirección de JakIntelligent Fundazioa -Barrio Legina, s/n – Larrabetzu (Bizkaia) que cede sus instalaciones, así como el personal necesario para la realización del programa, asumiendo su coste. A tal fin, el restaurane Azurmendi ha suscrito acuerdos de colaboración con las escuelas de hostelería de Bizkaia para el desarrollo de proyectos de Formación Profesional Dual en régimen de alternancia en la modalidad de becas.

Las prácticas de formación dual realizadas en el restaurante Azurmendi tendrá la consideración de prácticas curriculares externas.

d) Horas del programa: 1.750 horas, distribuidas en:

- Horas de actividad laboral en el restaurante Azurmendi: 1.400 horas
- Horas de formación en aula: 350 horas que se organizarán de la siguiente forma:
 - 200 horas a impartir en centros de formación profesional y
 - 150 horas en las instalaciones del restaurante Azurmendi.

e) Calendario y horario:

El programa se desarrollará en un curso, en el periodo comprendido entre el 1 junio de 2023 al 31 de mayo de 2024.

Durante el curso el alumnado realizará 40 horas semanales, sumadas entre la estancia en la empresa y las horas en el centro de



oporraldian izan ezik.

formación profesional, excepto en el período vacacional.

2023/12/11tik 2023/12/22ra eta 2024/01/8tik 2024/01/28ra (5 aste), ikasleek ikasgelako prestakuntza eta eduki teoriko-praktikoak jasoko dituzte CFP Leioako Ostalaritza Eskolan (LHII).

Desde el 11/12/2023 hasta el 22 /12/2023 y del 8/01/2024 al 28/01/2024 (5 semanas), el alumnado recibirá la formación en aula y los contenidos teórico-prácticos en el CFP Escuela de Hostelería de Leioa LHII.

Oporraldia: 4 aste 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 31ra. 2023/12/25etik 2024/01/07ra, ikasleek 2 asteko oporrak izango dituzte. Oporretako beste bi asteak ikasleak eta enpresak adostuko dituzte

Período vacaciones: 4 semanas desde el 1 de junio de 2023 hasta el 31 de mayo de 2024. Del 25/12/2023 hasta 07/01/2024, el alumnado disfrutará de 2 semanas de vacaciones. Las otras dos semanas de vacaciones serán acordadas entre el o la alumna y la empresa.

Ikasgelako prestakuntza-orduak ostalaritza-eskoletako irakasleek eta jatetxeko profesionalek emango dituzte.

Las horas de formación en aula se impartirán tanto por profesorado de las escuelas de hostelería como por profesionales del propio restaurante.

Jatetxea ixteko epea: 2023/12/17tik 2024/01/16ra.

Período de cierre del restaurante: del 17/12/2023 al 16/01/2024.

f) Beka:

f) Beca:

Programa honetan parte hartzen duten ikasleek unean-unean indarrean dagoen LGSren zenbatekoa baino txikiagoa izango ez den beka bat jasoko dute. Zenbateko hori enpresan lanean emandako denboraren proportzionala izango da. Beka hilean 1.008 €-ko 12 ordainsaritan ordainduko da, eta parte-hartzaile bakoitzak guztira jasoko duen zenbatekoa, denboraldi osoari dagokiona, 12.096 €-koa izango da (aparteko bi ordainsari barne).

El alumnado participante en este programa recibirá una beca que no podrá ser inferior al importe del SMI vigente en cada momento, que será proporcional al tiempo de actividad laboral en la empresa. La beca será abonada en 12 pagas de 1.008 € mensuales, siendo el total a percibir por cada participante, correspondiente al período completo la cantidad de 12.096 € (incluidas dos pagas extraordinarias.).

Bigarrena.- Erakunde onuraduna.

Segunda.- Entidad beneficiaria.

1. JakIntelligent Fundazioak bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar direnak.

1. JakIntelligent Fundazioa cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención.

2. Beste alde batetik, Foru Arauko 13. artikuluen arabera, ezarritako betebeharrak bete behar dira.

2. Por otro lado, la entidad está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 del Estatuto Foral.



guztiak bete beharko ditu.

obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

3. Dirulaguntza ordaindu baino lehen JakIntelligent Fundazioak zerga betebeharrak beteta eduki behar ditu eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eginda.

3. Con anterioridad al abono de la subvención, JakIntelligent Fundazioa deberá encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

4. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekurik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

4. La entidad beneficiaria de la subvención no está incurso en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

5. Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta elkarreragingarritasunaren bidez lor daitezkeen gainerako datuak.

5. La firma de este convenio conlleva la autorización de la entidad beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y el resto de los datos que puedan ser obtenidos mediante interoperabilidad.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Tercera.- Plazo de vigencia del convenio.

1. Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte luzatuko da haren indarraldia.

1. Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo

2. Hitzarmen honetan jasotako jarduerak gauzatzeko epea 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 31ra artekoa izango da.

2. El plazo para la ejecución de las actividades previstas en este convenio se fija desde el 1 de junio de 2023 hasta el 31 de mayo de 2024

3. Dirulaguntza aplikatu denaren justifikazioa aurkeztu beharko da Ekonomia Sustatzeko Sailean 2024ko uztailaren 30 aurretik.

3. La presentación de la justificación de la aplicación de la subvención en el Departamento de Promoción Económica deberá realizarse antes del 30 de julio de 2024.

4. Hori guztia hitzarmen honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruz araudi espezifikoak ezartzen duena alde batera utzi gabe

4. Todo ello sin perjuicio de lo que establezca la normativa específica con relación a las obligaciones impuestas a la entidad beneficiaria como consecuencia del este convenio.



Laugarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak.

1. Ezarri da proiektu honen kostua 223.929,90 euro baino gehiago izango dela eta betearazteko 150.000,00 euroko dirulaguntza eskatu zaio Bizkaiko Foru Aldundiari

2. Beraz, dirulaguntzaren zenbatekoa ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) eurokoa da, eta hori da baimendutako aurrekontu-kredituaren guztizko zenbatekoa. Kreditu hori, 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren baitan, honako honen kargura da: 0808/432109/45100 aurrekontuko partida, 2022/0095 aurrekontu-proiektua, "JakIntelligent Fundazioa".

3. Zenbateko hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren gehieneko ekarpena izango da, eta garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako zenbatekoaren jardunetan egon daitekeen gehikuntzak inoiz ez du eragingo emandako zenbatekoa gehitzea.

4. 5/2005 Foru Arauaren 31. artikulua aplikatuz, JakIntelligent Fundazioari 150.000,00 euroko dirulaguntza ordainduko zaio 2023. urtean, hitzarmen hau sinatzen denean, eta, ordainketa aurreratua izan arren, ez zaio bermerik eskatzen erakunde onuradunari, ez baitago itzulketari ihes egiteko arriskurik horretarako arrazoirik izanez gero, eta ez baitago aurreko dirulaguntzetatik ordaintzeke dagoen itzulketarik ere.

5. Erakundeak 2023an Goi Sukaldaritzako Esperientzia Gastronomikoen Sorkuntzan eta Garapenean Espezializatzeko 2023-204 Programarako garatu beharreko jarduerak finantzatzeko erabiliko du laguntza.

6. Diruz lagundu daitezkeen gastuetatik hartuko dira 2023ko ekainaren 1etik 2024ko maiatzaren 31ra bitartean egindakoak, baldin diruz lagundutako jardueraren izaerari zabalantzarik gabe erantzuten badiote eta

Cuarta.- Obligaciones y compromisos económicos de las partes.

1. Se ha estimado que el coste de este proyecto supera los 223.929,90 euros, solicitándose para su ejecución una subvención de 150.000,00 euros a la Diputación Foral de Bizkaia.

2. La cuantía de la subvención asciende, por tanto, a ciento cincuenta mil euros (150.000,00 €), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. Dicho crédito está designado con cargo a la partida presupuestaria 0808/432109/45100, proyecto presupuestario 2022/0095 "JakIntelligent Fundazioa" del presupuesto del ejercicio 2023.

3. Esta cantidad tendrá el carácter de aportación máxima por parte del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, sin que en ningún caso el posible aumento del importe previsto de las acciones a desarrollar implique aumento de la aportación concedida.

4. En aplicación del artículo 31 de la Norma Foral 5/2005, el pago de la subvención a JakIntelligent Fundazioa se realizará por un importe de 150.000,00 euros en el año 2023, a la firma del presente convenio y, a pesar de ser un pago anticipado, no se exigen garantías a la entidad beneficiaria ya que no existe riesgo de sustraerse al reintegro en caso de que se produjera causa para el mismo, y tampoco existen reintegros pendientes de anteriores subvenciones.

5. La entidad destinará la ayuda a financiar las actividades a desarrollar durante el año 2023 para el Programa de Especialización en creación y Desarrollo de Experiencias Gastronómicas en Alta Cocina 2023-204.

6. Se considerarán gastos subvencionables los realizados desde el 1 de junio de 2023 al 31 de mayo de 2024, que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada y resulten estrictamente



jarduera egiteko behar-beharrezkoak badira; barneko gastuak nahiz ustiapeneko kanpoko gastuak izan daitezke, hala nola kanonak, kanpoko zerbitzu profesionalak edo hornidurak, besteak beste. Dena den, behar bezala justifikatuta egon behar dira, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta hitzarmen honetan ezarritako justifikazio-aldia amaitzen den egunean ordainduta, hau da 2024ko uztailaren 30.

7. BEZagatik dirulaguntza emango da erakunde onuradunak egiaztatzen badu ezin dezakeela berreskuratu edo konpentsaziorik jaso.

8. Diruz lagun daitezkeen gastuak ez dira inolaz ere izango:

- a) Banku-kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak
- c) Prozedura judizialen gastuak.
- d) Berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak; ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

9. Justifikazio kontuaren auditoriaren ondoriozko gastua eta kontu-auditoreari dagokion ordainsari gehigarria diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira.

10. Onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduerari egotzi behar dizkio zeharkako kostuak, hain zuzen ere, onartutako kontabilitateko arauekin eta printzipioekin bat etorriz, kontuan edukita horretarako ezinbestekoa dela kostuok jarduera egin den aldikoak izatea.

11. Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen arloan kontratu txikietarako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoak baino, entitate onuradunak hiru

necesarios para su realización, pudiendo tratarse tanto de gastos internos como de gastos externos de explotación, como cánones, servicios profesionales externos o suministros, entre otros. En todo caso, deberán estar correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor y pagados a la fecha de finalización del periodo de justificación establecido en este convenio, esto es, a 30 de julio de 2024.

7. El IVA será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente y acredite no ser susceptible de recuperación o compensación.

8. En ningún caso serán gastos subvencionables:

- a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- c) Los gastos de procedimientos judiciales.
- d) Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta

9. El gasto derivado de la auditoría de la cuenta justificativa y la retribución adicional que corresponda percibir a la persona auditora de cuentas, tendrán la condición de gastos subvencionables.

10. Los costes indirectos serán imputados por la beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo a los principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se haya realizado la actividad.

11. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas para el contrato menor en la normativa vigente en materia de contratos del sector público, la entidad beneficiaria deberá



enpresa hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitatetik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi hori behar bezala azaldu behar da justifikazioan.

12. Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira txosten batean.

Bosgarrena- Erakunde onuradunaren beste betebeharrak.

1. Honako betebeharrak hauek izango ditu entitate onuradunak:

a) Genero ikuspegia sartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrek hauexek esan nahi du:

1) Egiaztatzea jarduketetan bete egiten direla 4/2005 Legearen 3. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak, egindako azterketa eta estatistiketan lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betetzen dela eta zuzenean edo hirugarrenen bidez sortutako hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentuetan hizkuntza sexista erabiltzen ez dela egiaztatzea.

2) Egiaztatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dela lanpostuen definizioan, lanpostuak eskuratzean, kontratatzean eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzukidetasunean eta norberaren bizitzan, lana, lanaldiaren iraupena eta antolamendua

solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes entidades proveedoras, con carácter previo a la contratación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención, circunstancia que deberá quedar explicada debidamente en la justificación.

12. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Quinta- Otras obligaciones de la entidad beneficiaria.

1. La entidad beneficiaria estará obligada a:

a) Incorporar la perspectiva de género y promover la igualdad de mujeres y hombres de acuerdo con lo establecido en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, lo que supone:

1º. Acreditar que en sus actuaciones se cumplen los principios generales señalados en el artículo 3 de la Ley 4/2005, que en los estudios y estadísticas que realicen se cumple con lo dispuesto en el art. 16 de la citada ley y que se realiza un uso no sexista en todo tipo de lenguaje, imágenes, soportes y documentos que produzca directamente o a través de terceras personas.

2º. Acreditar que se promueve la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y



uztartzean, eta ekintza sindikalean, ordezkartzen eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, zintzoak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz, eta ordainsarien gardentasunaren eta berdintasunaren printzipioa betez.

3) Egiatzatzea zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

4) Egiatzatzea bermatzen dela neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat. Hau da:

1) Diruz lagundutako jarduera publiko guztietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

2) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argitalpenetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

c) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.

negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias y que se cumple con el principio de transparencia e igualdad retributiva.

3º. Acreditar que se vela porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

4º. Acreditar que se garantiza la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

b) Utilizar las dos lenguas cooficiales de la Comunidad Autónoma Vasca de acuerdo con lo establecido en el artículo 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales, lo que supone:

1º. Utilizar las dos lenguas cooficiales en todas las actividades públicas resultantes de la actividad subvencionada.

2º. Utilizar las dos lenguas cooficiales en los materiales, publicaciones o cualquier otro soporte utilizado relacionado con la actividad subvencionada.

c) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.



d) Foru Administrazioako organoek edo erakunde laguntzaileak eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dituzten organoek ere.

e) Aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurokoak diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak edo urteko diru-sarreraren % 40 foru laguntzak edo dirulaguntza publikoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurokoak badira, bete egin beharko dituzte Bizkaiko gardentasunaren otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko publizitate aktiboaren betebeharrak. Hau da:

